

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARITZA. LEHENTASUNEZKO JARDUERA EREMUAK 2011-2014

curriculum eta kompetentziak
eskola inklusiboa
hezkuntza marko hirueleduna
eskola 2.0
lidergoa eta eskolako zuzendaritzak
elkarbizitza
hezkuntza zientifikoa



Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza: lehentasunezko jarduera eremuak

2011-2014

© Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Diciembre 2011

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

1. Curriculum eta kompetentziak

Currículum eta oinarrizko kompetentziak

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, jakitun delarik hezkuntza aurrerapenerako eta etorkizuna bermatzeko tresna dela, kalitateko irakaskuntza baten aldeko apustua egin nahi du, gure haur eta gazteek XXI. mendeko gizartean beharrezkoak diren ezagutza, abilezia eta balioak eskura ditzaten.

Azken batean, hau lortzeko erreferente gisa eratu dira curriculum berriak: herritar bakoitzak bere ahalmena eta talentua eskuratu behar ditu gara ditzakeen prestakuntza eta ezagutzak kontuan hartuta, edozein direla ere bere sexua, sinesmenak, jatorria eta baliabide ekonomikoak.

Indarrean dagoen curriculumak ikasleen oinarrizko gaitasunak garatu nahi ditu. Oinarrizko gaitasunen artean, batzuk zeharkakoak dira, hala nola, ikasten ikasteko gaitasuna, hizkuntza-komunikazioa, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna, gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna eta norberaren autonomia eta ekimena. Beste batzuek lotura zuzenagoa dute curriculumeko arlo edo ikasgai zehatzekin; besteak beste, zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunak, matematika-gaitasunak eta kultura humanistikorako eta artistikorako gaitasunak. Hala ere, oinarrizko gaitasun guztiak modu berean dira garrantzitsuak, izan ere, horietako bakoitzak bizitzan arrakasta izaten lagun dezake ezagutzaren gizarte batean, eta, aldi berean, esparru bateko funtsezko alderdi batzuek beste esparru bateko gaitasuna laguntzen dute.

Ikasle guztien oinarrizko gaitasunak eta emaitzak hobetzeko xedea izan behar dute ekimen guztiek, bai ikastetxeetan gauzatzen direnek, bai eta Hezkuntza Sailaren unitateek lantzen dituztenek ere.

Ebaluazio diagnostikoa eta hobekuntza planak

Indarrean dagoen curriculumak kanpo-ebaluazioko tresnatzat jotzen du ebaluazio-diagnostikoa, ikasleek gaitasun horiek zer neurriraino eskuratu dituzten jakiteko eta ikastetxe bakoitzak lan horretan zer eraginkortasun duen neurtzeko. Prestakuntza da ebaluazio-diagnostikoaren egiteko nagusia; izan ere, haren xedea da ikastetxe bakoitzak lortutako emaitzak egokitasunez aztertzea, ondorioak ateratzea eta hobekuntza-planak egitea, hautemandako indarguneak finkatzeko eta ahuleziak gainditzeko. 2008-2009 ikasturtean modu orokorrean aplikatzen hasi zenetik, garrantzi handiko prozesu bat abiarazi da; emaitzak jarri dizkigu begi-bistan EAEko ikastetxe guztiei eta hezkuntza-sistema osoari, eta horiek hobetzeko neurriak hartzera derrigortzen gaitu. Ikastetxeetan hezkuntza-berrikuntza sartu ahal

izateko, hobekuntza-planak zehatz eta bideragarri bihurtu behar dira, jarraipen egoki bat egiteko aukera eman behar dute, bai eta ikasleen gaitasun-mailatan zer eragin duten jakiteko ere, eta irakasle guztiak inplikatu behar dituzte..

2. Eskola inklusiboa

Oinarrizko Hezkuntzarako curriculumaren dekretuak xedatzen du ikasle guztiek eskuratu behar dituztela oinarrizko gaitasunak; horretarako, hainbat ekimen abiarazi behar dira, ikasle bakoitzak ahal den neurri handienera gara ditzan bere gaitasunak.

Ohiko ikasgelak erreferentzia izango dira jarduera inklusiboak aplikatzeko orduan. Antolamenduko eta metodologiako planteamenduek aukera eman behar dute ikasle guztiak sartzeko ikaskuntza-prozesuetan. Horrenbestez, lehentasuna eman behar diogu ikasle guztiak testuinguru berdinean sartzeko moduak bilatzeari; xede hori lortzeko, bereziki zaindu behar dira ikasketa-prozesua, ikasleen, irakasleen eta baliabideen antolamendua eta proposamen didaktikoen dibertsifikazioa.

Eskola inklusiboak erantzun egokia eman behar die hezkuntza-premia bereziei, ikasteko eragin ditzaketen zailtasunak gainditu behar ditu, eta ahalik eta gehien indartu behar du parte-hartzea. Bestalde, eskolako kide guztien bikaintasun-mailak handitzeko lan egin behar da.

Honako xede hauek dituzte aniztasunari erantzun emateko neurriek: ikasleen berariazko hezkuntza-premiei erantzutea eta ikasleek curriculumean jasotako oinarrizko gaitasunen gutxienera mailak eskuratzeko. Neurri horiek bide bat ireki behar dute adierazitako helburuak eta xedeko titulazioak lor ditzaten ikasleek. Zenbait neurri aplikatzen dira ikasleen aniztasunari erantzun emateko:

- **Ohiko neurri orokorrak:** taldearen beharretara egokitzea programazio didaktikoa, arloen eta ikasgaien ordutegia banatzea, hautazko ikasgaiak eskaintzea, ohiko taldeetan laguntza ematea, taldea bitan banatzea, indartzeko neurriak etab.
- **Ohiz kanpoko neurriak:** zikloan edo mailan gelditzea beste urtebetez, curriculum-aniztasuneko programak, hezkuntza-laguntza espezifikoko proiektuak, eskolatzeko osagarriko programak eta tratamendu pertsonalizatuko beste zenbait programa hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleentzat
- **Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako neurriak:** banakako curriculum-egokitzapenak, eskolatzeko-denbora zabaltzea edo murriztea, zereginak ikasteko gelak...

3. Hizkuntza marko hirueleduna

Euskadiko hezkuntza-sistemaren apustua da ikasleek euskara eta gaztelania dakizkitela bermatzea eta horien erabilpena indartzea eskolan zein gizartean, geure hizkuntzak diren aldetik, eta atzerriko hizkuntza bat gehitzea irakaskuntzako eduki jakin batzuk irakasteko. Hau da, hiru hizkuntzako sistema baten alde egin du apustu (H1 + H2) + H3, eta testuinguru pertsonaletan, hezkuntzako testuinguruetan eta laneko testuinguruetan ziurtasunez eta eraginkortasunez komunikatzeko behar diren hizkuntza-komunikazioko gaitasunak garatuko direla bermatu behar du sistema horrek. Ikasle guztiek lortu behar dute eleaniztasunerako gaitasun hori.

Hezkuntza-sistemaren erantzukizuna da ikasle guztiek hizkuntza-komunikazioko gaitasuna garatzea, eta bermatu behar du guztiek aukera berberak izango dituztela hezkuntza-baliabideak eskuratzeko eta ikasketetan arrakasta izateko, bereziki oinarrizko edo nahitaezko etapetan. Horrez gain, gizarteko hizkuntza-aniztasuna, aniztasun soziala eta kultura-aniztasuna aitortu eta erabili behar ditu. Horrek esan nahi du batzuetan elkarrengandik urruntzen diren interesak eta beharrak bateratu beharko dituela. Beraz, hezkuntza-politikak era guztietako aniztasuna errespetatu behar du, eta, era berean, proposamenak egin behar ditu ikastetxeen ekintza bideratzeko, hezkuntzako maila eta etapa guztietako ikasleek hizkuntzak ikasteko helburuak bete ditzaten.

Euskararen Aholku Batzordeak *"XXI. mendearen hasierako hizkuntza-politikarako oinarriak. Itun berritu bat lortzeko bidean"* izeneko txosten bat egin zuen hezkuntza-esparrurako, eta bertan jasotako gomendioetan oinarritzen dira Hezkuntza Marko Hirueledunaren (HMH) printzipioak (proiektuak aurkezteko deialdian jasota daude). Funtsean, honako gogoeta hau hartzen dute ardatz: «Zuzendu beharrekoak detektatu eta adostasun zabalez aldatzeari ekin beharko zaio, betiere helburu nagusia garbi izanik: eskolak euskaldundu du eta euskalduntzen jarraitu behar du. Zeregin horretan bateratu behar ditu, batetik, gurasoek seme-alaben eskola-hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea eta, bestetik, ikasleek derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran EAEko bi hizkuntza ofizialetan gaitasun nahikoa lortzeko betebeharra. Horrez gain, hirugarren hizkuntza baten neurri apalagoko irakaskuntzari ere tokia egin behar zaio bertako bi hizkuntza ofizialen irakaskuntzaren ondoan».

Jarduera-eremu horretan, lehentasuna eman behar zaio esperimendazioan parte hartzen duten ikastetxeen jarraipenari eta prestakuntzari, eta, era berean, mintegiak gauzatu behar dira hori koordinatzeko. Beste alde batetik, ikastetxeek haien hizkuntza-proiektuak zehazteko egiten duten lana sakondu eta indartu behar da.

4. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

La nueva sociedad del conocimiento y la extensión de las Tecnologías de la Información y de la Comunicación, han provocado un cambio radical en las necesidades formativas de las personas, que debe tener su reflejo en el proceso educativo que las cubre: las TIC, son la herramienta clave en la educación permanente, tanto del alumnado como del profesorado y las familias. Se trata de alcanzar por un lado el aprovechamiento pleno de los medios digitales por parte de los agentes que participan en la educación y por otro la capacitación de los ciudadanos, promoviendo la inserción de las TIC en los procesos pedagógicos, administrativos y de información y comunicación de los centros, garantizando la coordinación y la coherencia de todas las acciones.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) hezkuntza-alarrean gero eta gehiago erabiltze aldera, Hezkuntza Sailak lehentasuna ematen die irakasleen teknologia-gaitasuna eguneratzeko eta irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuen metodologia aldatzeko planei, ikasgaietan eduki digitalak sartzeko planei eta pedagogia-lana, administraziokoa, komunikaziokoa eta eskola-komunitatearen arteko harremanak errazteko plataforma telematikoak abiarazten dituzten planei.

Eskola 2.0

Bide berri horren erakusgarri da Eskola 2.0 proiektua; Lehen Hezkuntzako azken zikloan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi mailetan gauzatzen da. Hain zuzen ere, irakasleek eta ikasleek gelan egiten duten lana egokitu nahi da proiektu horren bidez. Alabaina, Eskola 2.0 proiektua gauzatzeko ez da nahikoa ikastetxeak azpiegituraz hornitzea; aldiz, irakasleentzako informazio- eta eguneratze-plan bat ezarri du, curriculum-eduki digitalak sortu ditu, eta, gainera, familien inplikazioa ere lortu nahi du, ez dadin urruntze bat gertatu eskolaren eta familien artean.

Modelo de Madurez Tecnológica de Centro Educativo

Sailak ezarritako erreferentzia-marko komunaren esparruan, eta Euskal Eskola Publikoaren Legeak ikastetxeei onartzen dien autonomia errespetatu nahi denez, ikastetxe bakoitzari dagokio erabakitzea IKTen alorrean zer heldutasun lortu nahi duen. Hori horrela, bere plan teknologikoa diseinatu ahal izango du ikastetxe bakoitzak haren berezitasunen, prestakuntza-etapen, neurriaren, ibilbidearen eta abarren arabera. Haren beharretara egokituta egongo da plana, eta bat etorriko da Hezkuntza Sailak zehaztutako helburu orokorrekin.

Hiru mailatan egituratzen da eredia (oinarrizkoa: trebatzea eta erabiltzea; bitartekoa: ikasgela digitalizatzea; eta aurreratua: ikastetxea birtual bihurtzea). Maila horietako bakoitzak areagotu egiten du ikastetxeko prozesuen digitalizazioa, eta ikasgelan IKTak erabiltzera bultzatzen ditu irakasleak.

 **Ikastetxeetako teknologia-heldutasunaren eredia**

5. Lidergoa, eskolako zuzendaritzak eta hezkuntza sareak

Lidergoa eta eskolako zuzendaritzak

Hezkuntza Sailak neurri sendoak bultzatu ditu zuzendariak eta haien zuzendaritza-taldeek egindako lana aitortzeko eta haien jarraipena eta egonkortasuna errazteko. Neurri horien artean, nabarmentzekoa da prestakuntza-estrategia berriak prestatu eta aplikatu dituela. Estrategia horiek lotura zuzena dute zuzendaritzako zereginekin, eta zuzendarien lanbidea garatzea sustatzen dute haiek esku hartzen duten esparru guztietan.

Lidergo eraginkorrak sustatu nahi dira ikuspegi bateratuak adosteko ikastetxeen geroari dagokionez, irakasleen motibazioa eta garapen profesionala lortzeko horiek ikastetxeko proiektuetan inplikaturik, ikasleek emaitza hobekiak lortzeko xedea ikastetxeko jardura orokorraren ardatz izan dadin, eta familiekiko eta inguruarekiko lankidetzak sustatzeko.

Hezkuntza sareak

Ikastetxe-sareak osatzeko lan-ildoak bultzatu nahi dira. Sare horiek proiektu orokor bat izan behar dute ardatz, eta ikastetxe osoa inplikatuz. Ikastetxe-sareek lan koordinatua egingo dute, eta haien xedea izango da irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesuak hobetzea, bai eta, azken buruan, ikasleen emaitzak hobetzea ere.

2010-2011 ikasturtean zehar, hiru ikastetxe-sare eratu ziren, eta ibilbide luzeko ikastetxe ugariaren esperientzia bildu zuten honako proiektu global hauetan: *Amara Berri*, *Ikas-komunitateak* eta *“Kalitatea Hezkuntzan” kalitatea kudeatzeko sistema*.

Hezkuntza-sare bakoitzeko koordinazio-egiturak eta inguruko berritzeguneak erreferentzia izango dira gainerako ikastetxeentzat, bai eta prestakuntza-eragile ere proiektu horietan sartu nahi dutenentzat.

 **Redes colaborativas de centros “Hezkuntza sareak”**

6. Elkarbizitza

Gizartean gertatzen diren aldaketak direla eta, etengabe egokitu behar da hezkuntza-sistema. Ezagutzak helarazi baino askoz ere gehiago egin behar du XXI. mendeko hezkuntzak. Hain zuzen ere, belaunaldi berrien integrazio pertsonala, gizarteratzea eta laneratzea errazteko gaitasunak garatu behar ditu etengabe aldatzen den gizarte-testuinguru batean.

Guri dagokigunez, "elkarrekin bizitzen ikastea" da hezkuntza-sistemaren oinarritzko helburuetako bat. Ikastetxeen erronka da hezkuntza-komunitateak bere egingo duen bizikidetzaren eredu bat lantzea, balio demokratikoetan oinarritutakoa. Hezkuntza-komunitateak bizikidetzaren eredu hori bere egingo badu, familiek, irakasleek eta ikasleek guztiek batera egin eta landu behar dute.

Oinarritzko gaitasun guztiekin lotuta dago "elkarrekin bizitzen ikastea" (beraz, ikastetxe osoak saiatu behar du lan horretan), baina bereziki "Gizarterako eta Hiritartasunerako gaitasunarekin" eta "Norberaren ekimenerako eta autonomiarako gaitasunarekin". Gaitasun horiek erreferentziazko eremurik ez dutenez, lausotzeko arriskua dute. Gaitasun horien mami eta "elkarrekin bizitzen ikasteko" ezinbesteko ikaskuntza dira honako hauek: norberaren herritartasuna arduraz erabiltzea, ikastetxean eta gizarte-bizitzan inplikatzeko ikastea, elkarriketaren bidea ikastea, giza eskubideak errespetatzea, biktimekiko enpatia izatea, gatazkekiko jarrera positiboa izatea, gizarte-trebetasunak eta emozioen kontrola lantzea, ideiak proiektu bihurtu eta horiek burutzeko gai izatea, nor bere burua ezagutzea eta autoestimua lantzea eta abar. Ikuspuntu horretatik, bizikidetzaren planak oso tresna baliagarriak dira ikastetxeek gaitasun horiekiko dituzten hezkuntza-helburuak berriz pentsatzeko, diseinatzeke eta bistarazteke.

Hori horrela, uste dugu guztiz beharrezkoa dela ikastetxe guztiek urteko bizikidetzaren plan bat izatea eta biziki-detzaren behatoki bat osatuta edukitzea.

6. Hezkuntza zientifikoa

Jakintza zientifikoa funtsezko elementu bihurtu da gizarte modernoetan. Hala diote nazioarteko eta nazioko erakundeek, mende honetako hezkuntza-xede garrantzitsuenen artean sartzen baitute hezkuntza zientifikoa.

Ia Europako eskola-curriculum guztien xedeetako bat da herritarren alfabetatze zientifikoa lantzea etapa goiztiarretatik.

Gaur egun bizi dugun jakintzaren gizartean, gaitasun zientifikoak dituzten herritarrak behar dira honako arrazoi hauengatik: alde batetik, aurrerapen sozioekonomikoa bultzatzen duelako, eta herritarren lana aurkitzeko aukerak areagotzen; eta, beste alde batetik, norberaren errealizazioa, gizarteratzea eta herritarren parte-hartzea sustatzen dituelako.

Hala eta guztiz ere, egindako zenbait txostenek eta ebaluaziok agerian utzi dute egoera hobetu beharra dagoela; gure ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitzean zer emaitza zituzten aztertu zuten txosten horiek, bai gaitasun zientifikoari zegokionez, bai eta zientziarekiko motibazioari eta jarrerari zegokienez ere. Egoera hori aldatzeko, arreta berezia jarri behar da ikasgeletako prozesuetan, hau da, erabiltzen diren metodologietan eta baliabideetan, eta irakasleen prestakuntzan eta horiek ikasgeletan gauzatzen dituzten jardueretan; berrikuntzako eta ikerketako lanekin lotu behar dira horiek, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesu arrakastatsuak eta kalitatezkoak bermatzeko egin beharreko aldaketak egin ahal izateko.

Hori guztia kontuan hartuta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, eta, bereziki, Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritzak, pentsatu dute lehentasunezko jarduera-esparru bihurtu behar dela hezkuntza zientifikoa, eta zenbait ekimen abiarazi dituzte zientzia irakasteko metodologiak hobetzeko (Zientzia Hezkuntza), zientzia-bokazioa sustatzeko (zientzia-udalekuak, jarduera praktikoak...) edo ikerketa gure ikasleengana hurbiltzeko (Training Caravan). Azken batean, ikasleen prestakuntza zientifikoa hobetzeko xedea dute ekimen horiek guztiek.